FATIMAKO MEZUA

Ilustrazioak: Júlio Gil

© Ilustrazioak: Júlio Gil
© Testu: Leonor de Sousa Mendes
Manuel Vieira da Cruz

Itzulpen: David Galartza

Printed in Spain, 2017

Portugalen erdian, Aireko mendikatean
Aljustrel izeneko herri txiki bat dago.
Bertan, Fatima ondoan, 1915 urtean
hasten da benetako istorio hau.



Hiru lagunekin errosarioa otoitz egiten zuelarik, Luziak, artzai txiki batek, ibarraren zuhaitzen gainean hodei baten antzeko zerbait ikusi zuen. Elurra baino zuriagoa zen, gardena, giza irudiduna.

Eta beste bi egunez agertu zen berriz ere, hitzik esan gabe.



Hilabete batzuk pasa ziren
eta urte berri bat iritsi zen.

Udaberriko egun eder batean, Luzia
bere lehengusu, Jazinta eta Frantziskorekin
atera zen, gurasoen ardiak larratzera.

Goizerdi aldera eurixka hasi zen
eta hiru artzaitxoek mendixka baten aldapa
igo zuten, gordetzeko leku baten bila.



Aurkitu zuten kobazulo txiki batean, askaria jan zuten eta errosarioa otoitz egin zuten. Gero jolasten hasi ziren.

Berehala, zuhaitzak astintzen zuen haize gogorra sumatu zuten. Begirada altxatu zuten eta olibondoaren gainean elurra baino zuriago zen mutil bat ikusi zuten.



Zuria zen mutil hura beraiengana hurbildu zenean, beldurtu ziren. Orduan ez beldurtzeko esan zien:

Bakearen aingerua naiz. Nirekin otoitz egin ezazue.



Eta bekokiarekin lurra ikutu arte makurtu zen, horrela esaten:

Ene Jainko, nik Zugan sinesten dut.
Gurtzen zaitut, itxaron zaitut, maite zaitut.
Sinesten ez dutenen alde, ixaropena
ez dutenen alde, maite ez dutenen alde
barkamena eskatzen dizut.

Hiru aldiz gehiago horrela otoitz egin zuen eta artzaitxoek berarekin errezatu zuten. Desagertu baino lehen Aingeruak eskatu zien:

– *Honela egin otoitz. Jesusen eta Mariaren Bihotzak zuen eskakizunen zai daude.*

Udako egunen batean, bazkalondoan haurrak baratzeko putzuaren ondoan jolasean ziren. Bat-batean Aingerua berriz agertu zitzaien. Artzaitxoei esan zien: – *Otoitz egin! Otoitz asko egin!*

Gero bekatarien bihotzberritzerako eta bakearen aldeko otoitzak eta sakrifizioak Jainkoari eskaintzeko eskatu zien. Eta bera Portugaleko aingeru zaindaria zela esan zien:

–... *Onartu eta jasan onginahiez Jaunak bidalitako sufrimendua.*

Udazken aldera, Aingerua berriz ere
artzaitxoei agertu zitzaien
Loca do Cabeço izeneko leku batean,
eta Jesukristoren gorputza
eta odola Hostia sagaratuan eta kalizan
nola gurtu behar zuten irakatsi zien.

Gero artzaitxoek aingeruaren
eskutik jaunartu zuten eta
otoitz egiten jarraitu zuten.

Hirutasun guztiz santua,
Aita, Semea eta Espiritu Santua,
sakonki gurtzen zaitut
eta eskaintzen dizkizut
Jesusen gorputza, odola, arima
eta Jainkotasun guztiz baliotsua,
Lurreko sagrario guztietan izana,
Jesusi egindako irain, sakrilejio
eta ezaxolakeria guztien bekamengisa.
Eta bere Bihotz guztiz santuaren
eta Mariaren errugabeko bihotzaren
meritu mugagabeengatik
pekatari gaixoen bihotzberritzea
eskatzen dizut.

1917ko maiatzaren 13an,
hiru artzaitxoek Cova da Iria izeneko
leku batera gidatu zuten artaldea.
Jolasten ari zirelarik tximista antzeko
zerbait ikusi zuten.



Etxera bueltatzeko prestatzen ari ziren bitartean beste tximista bat ikusi zuten eta geroxeago, arte txiki baten gainean, eguzkia baino distiratsuago eta guztiz zuriz jantzita zegoen Andre bat ikusi zuten.



Eta andre horrek, artzaitxoei ondorengo sei hilabeteetan, bertara joateko esan zien, beti hile bakoitzeko 13an, ordu berean. Hori eginda, nor zela eta zer nahi zuela esango zien.

Eta eskatu zien:

Munduaren bakea eta gerraren amaiera lortzeko, egunero errosarioa otoitz egin.

Berehala soseguz igotzen hasi zen, urruntasunaren handitasunean desagertu arte.

Ekainaren 13an Andreak artzaitxoei esan zien: – *Jesusek nire Errugabeko Bihotzaren debozioa eraiki nahi du munduan, debozio hau besarkatzen duenari Salbamena agintzen diot.*



Egun hartan agerpenen berri izan zuen jendea iristen hasi zen.

Uztailaren 13an gure Andrea berriz agertu zen:

Urrian nor naizen, zer nahi dudan esango dut eta denek ikusiko duten mirari bat egingo dut, guztiek sinets dezaten.

Eskatu zien bekatariengatik sakrifikatzeko eta askotan, bereziki sakrifizio egiterakoan, esateko:

Ene Jesus zure maitasunagatik da, bekatarien bihotzberriarengatik eta Mariaren Bihotz Garbiaren aurka egindako bekatuak erreparatzeko.

Infernua, bekatarien arimak joaten diren lekua, erakutsi zien. Salbatzeko, Jainkoak Mariaren Bihotz errugabearengan debozioa ezarri nahi du. Errosarioaren misterio bakoitza bukatzerakoan honela eskatu behar dugu:

Ene Jesus, barka gaitzazu,
Infernuko suetatik aska gaitzazu,
eraman itzazu zerura
arima guztiak, bereziki
behartsuenak.



Artzaitxoak zigorrak eta jazarpenak jasaten hasi ziren. Bazegoen mehatxu egiten zien jendea; beste askok burla egiten zieten. Artzaitxoek, ikusi zutena ukatzea nahi zuten, eta hori lortzeko atxilotu zituzten eta tortura eta heriotzarekin mehatxatu zituzten. Abuztuaren 13an ezin izan zuten Cova da Iria-ra joan, Vila Nova de Ourém-en atxilotuak baitzeuden. Baina inoiz ez zuten ikusi zutena ukatu. Posible zuten aldiro sakrifikatzen ziren eta bere mina onartu eta eskaintzen zuten Andreak eskatu zien bezala.



Abuztuaren 19an gure Andrea artzaitxeen etxe ondoan agertu zen, Valinhos deitzen zuten leku batean.

– *Otoitz egin, otoitz asko egin ezazue eta bekatariengatik sakrifizioak egin itzazue, Infernura anima asko joaten baitira beraien alde otoitz ez egiteagatik eta ez sakrifikatzeagatik.*

Gerraren amaiera lortzeko errosarioa otoitz egiten jarraitu.



Irailaren 13an, gure Andreak artzaitxoei Jainkoa beraiek egindako sakrifizioekin pozik zegoela esan zien eta urrian mirari bat ikusiko zutela.



Azkenean, urrian 13an gure Andreak honela hitz egin zion Luziari:

Hemen nere oborean kapera bat egiteko esan nahi dizut; errosarioaren Andrea naizela; beti errosarioa errezatu dezazuela, egunero…

Ez samindu gehiago gure Jauna, irain asko sufritu du eta.



Egun hartan gure Andreak agindu zuen miraria gertatu zen: jende askok eguzkia dardaratzen, ikusi zuen, tokian bira egiten eta dantzatzen, eta norabide guztietara koloredun izpi distiratsuak botatzen.

Hiru artzaitxoek errosarioa egunero otoitz egiten jarraitu zuten eta gure Andreak eskatu ziena egiten zuten. Bere bizitzetan Jesukristo igartzen eta bere bihotzetan hartzen zuten. Eta horrela osotasun eta maitasunez bizitzen zuten momentu bakoitza.



Artzaitxoek bazekiten
Hostia konsagaratuan
beti Jesukristo aurkitzen dugula,
nahiz eta ez ikusi, haurrak
"Jesus ezkututa" deitzen zioten
sakramentu guztiz santuari.
Eta denbora asko pasatzen zuten
eukaristian Jainkoa gurtzen.

Orain dela ehun bat urte Portugalen. Lehendabizi, artzaitxoei agertu zitzaien Bakearen Aingerua. Otoitz asko egiteko eskatu zien eta Jauna maitasunez, itxaropenez eta sinismenez, gurtzen irakatsi zien. Gero Maria, Jesusen Ama, agertu zen. Gure Andrea tematu zen: egunero errosarioa otoitz egin, bekatarien bihotzberriaren alde eta munduko bakearen alde.

Fatimako mezua otoitz egiterako eta penitentziarako, etengabeko bihotzberritzerako deialdia da. Gure gauregunera zuzentzen da guztiontzat eta norberarentzat.



VASCUENCE / EUSKERA

fundación familia fe
Fundação AIS
ACN PORTUGAL
FUNDAÇÃO PONTIFÍCIA